

# Chillidarekin dantzan

Aste honetan, HHko ikasleak San Telmo museora hurbildu dira. Gure artea eta kultura ezagutzeari garrantzi handia ematen diogu, horregatik horrelako ekintzak burutzea ezinbestekoa da guretzat. Oraingoan, "Chillidarekin dantzan" San Telmo museoak proposatzen duen esperientzia izan da. Eduardo Chillida eskultorea eta bere obra ezagutzen dute ikasleek dantza eta musikaren bidez. Bidenabar, etxeko txikienek beraien irudimena askatzeko aitzakia ere bada. Aretuetan Chillida eskultorea eta bere obra ezagutu, eta hezkuntza tailerlean eskultura mugikorrak egiten dituzte Vivaldiren musikari jarraikiz.

